

## Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena

Céline Mounole

► **To cite this version:**

Céline Mounole. Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena. ASJU-ren gehigarriak,, 2008, pp.585-603. <artxibo-00359975>

**HAL Id: artxibo-00359975**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00359975>**

Submitted on 9 Feb 2009

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Sintaxi diakronikoa eta aditz multzoaren garapena: imperfektibozko perifrasiaren sorreraz

Céline Mounole

EHU/ UPV

## 0. Sarrera<sup>1</sup>

Euskarak perifrasi mota desberdinak ditu eta horietarik bat dugu imperfektibozko perifrasi. Aditz-izena inesiboan eta *izan* / *\*edun* laguntzaile estatiboek osatzen dute, eta segur aski jatorrian progresibozko egitura bat zen. Biziki gauza arrunta da munduko hizkuntzen artean lokatibozko predikatu baten progresibo gisa gramatikalizatzea (Heine 1993, Bybee 1994 & al.), eta euskarak bat egiten du joera horrekin.

Lan honetan, egitura horren garapen sintaktikoa aztertu nahi dugu. Horretarako, tipologia eta gramatikalizazioa lan trena gisa erabiliko ditugu gure formen azaltzeko eta berreraikitzeko.

Lehenbiziko parte batean, imperfektibozko perifrasi aurkeztuko dugu euskararen sinkronian eta diakronian. Bigarrenik, munduko hizkuntzetako datuak eta euskararenak parez pare ezarriko ditugu ikusteko nola sortzen diren gisa horretako egiturak. Hirugarren zati batean euskarazko egituraren sorrera eta garapenari buruzko hipotesi bat proposatuko dugu.

## 1. Imperfektibozko perifrasiak gehiago

### 1.1. Sinkronian

Inperfektibozko perifrasi ikuspegi sinkroniko batetik begiraten badugu, ohartzen gara biziki egitura gardena duela. Lehenik, haren aditz nagusia aditz-izen bat da inesiboan. Euskalkiz euskalki eta aditzez aditz, txandaketa handiak ditugu aditz-izen horren formari dagokionez. Izan ere, aditzoinetik eratorzen da, *-te*, *-tze*, *-(k)eta*, edo *-tzaite* atzizkiak gehituz, euskalkien arabera. Gero, aditz-izen horri lotzen zaio inesibozko kasua. Perifrasiaren laguntzaileei dagokienez, *izan* laguntzailea erabiltzen da aditz nagusi iragangaitzekin eta *\*edun* laguntzailea aditz nagusi iragankorrekin.<sup>2</sup>

Inperfektibozko perifrasi orainaldian nola iraganean erabiltzen da, laguntzaileek *tempus* edo aldi egokia jantzirik ([+ORAI] edo [-ORAI]). Aldi orainean egiturak aspektu jarraikorra edo orainaldi sinplea (1) eta progresiboa (2) adierazten ditu, baita ohitura ere (3):

- (1) Ongi entzuten zaitut
- (2) Eskailerak jausten ditut
- (3) Egun guziz egunkaria irakurtzen dut

---

<sup>1</sup> Eskerrik beroenak Joseba Lakarra, Julen Manterola eta Xabier Artiagoitiari beren oharrengatik.

<sup>2</sup> Lan honetan ez ditugu aipatuko aditz iragankorrekin erabil litezkeen laguntzaile hirupertsonalak (*eradun*, *eutsi*, *-i-*). Hortaz ikus Mounole (2008).

Oyharçabalek (2003) azpimarratzen duen bezala, euskalki gehienetan, imperfektibozko perifrasi ez da erabiltzen progresiboaren adierazteko. Trinkoki joka litezkeen aditzek progresiboa adizki trinkoaren bidez adierazten dute, eta imperfektibozko perifrasi baliatzen dute ohituraren adierazteko: *nator* (progresiboa) vs *etortzen naiz* (ohitura).

Batzuetan eta bereziki ekialdeko euskalkietan, perifrasi horrek geroaldia adieraz dezake:

(4) Bihar, zazpietan abiatzen naiz

Aldi iraganean, berriz, egitura horrek imperfektua adierazten du nagusiki (5), nahiz eta iraganeko ohiturarentzat ere baliatzen den (6):

(5) Ez zintudan ongi entzuten

(6) Egun guziz egunkaria erosten nuen

## 1. 2. Diakronian

Euskalari zenbaiten lanetan oharrak agertzen zaizkigu perifrasi horren historiari buruz. Lehenik, jatorriari dagokionez, Haasek (1992) bere tesi lanean proposatzen du euskarazko forma gaskoieraren progresibozko perifrasiaren kalkoa baizik ez dela. Gisa horretan, parez pare ezartzen ditu gaskoierazko *èste a her quaucom* ('estar en hacer algo') eta euskarazko *zerbait egiten dut* perifrasiak:

Es kann angenommen werden, daß für die Entstehung dieses Progressivs der lateinisch-romanische Sprachkontakt verantwortlich ist, denn im Gaskognischen wird der Progressiv in vergleichbarer Weise gebildet: Er besteht aus dem Hilfsverb *estar* (*èste*) und einer lokalen Präposition (*a/en*), an die der Infinitiv angeschlossen wird. (Haase 1992: 93)

Perifrasiaren egituraketari dagokionez, Traskek (1995, 1997) ohar andana bat egiten du aditz-izenari buruz, baina, dudarik gabe, Urgellen lana (2006) da daukagun lanik zehatzena perifrasi horren diakronikoki aztertzeke. Urgellek XVI eta XVII. mendeetako eta lehenagoko lekukotasunen azterketa zorrotza burutzen du, eta hortik, aditz-izenaren atzizkiaren banaketa eta erabilpena argitzen ditu. Gorago erran bezala, euskalkiek lau atzizki nagusi erabiltzen dituzte aditz-izena aditzoinetik eratortzeko:

(1) *-te* atzizkia: euskara arkaikoan, euskal jatorriko aditzetan erabiltzen da, hots, partizipioak mota horretako bukaerak dituelarik: (i) *-n* (*edate*, 1533); (ii) ozen *+i* (*irakurte*, a. 1425); (iii) txistukari *+i* (*ekuste*, 1545); (iv) bokal (*ozterate*, XIV. mendea); (v) *-gi* *-ki* (*jalgite*, 1545). Bestalde, Urgellek azpimarratzen du 1545 aitzin ez dela aurkitzen lekukotasunik non *-te* erabil litekeen maileguekin edo partizipiozko forma *-tu-z* duen batekin. Proposatzen du 1545 eta 1645 artean, hots ehun urtez, Nafarroa Garaia iparralde (Berriain, 1621), Nafarroa Beherea (Etxepare, 1545) eta Lapurdi besarkatzen dituen eremuan aldaketa handi bat gertatu zela atzizki horren erabilpenean: orduetik aitzina *-te* atzizkia bi kontestutan baizik ez da erabiltzen: oinarria edo *stem-a* *-n-z* eta txistukariz duten aditzekin.

(2) *-tze* atzizkia: Urgellen ustez, *-tze* atzizkia partizipioa *-tu-z* duten aditzetan agertuko zen erromantzezko mailegutan nola euskal jatorrizko aditzetan (*hartze*,

*agertze, ezagutze*). Geroxeago, erdialdean *-te* atzizkia ordezkatu zuen aipatu gainerateko kontestuetan. Mendebaldean, *-eta* atzizkia da horren ordaina.

(3) *-eta* atzizkia: Testuen kronologiak erakusten du *-eta* atzizkia nagusiki mailegu modernoetan erabiltzen dela (*-adu, -idu-z* bukatuak) mendebaldean.

(4) *-tzaite* atzizkia: mendebaldeko testuetan baizik ez da aurkitzen (Araba eta Bizkaia). Orohar, iduri luke bi eremuetan ozenez bukatu CVC tipoko erroei gehitzen zaiela (*galtzaite, kentzaite, sartzaite*). Bizkitartean, Araban, txistukariz bukatu monosilabikoetan aurkitzen da (ikus Lazarraga 1567 *autsaite, itsaite*), eta herskariz bukatu monosilabiko (*batzaite, lotzaite*) eta polisilabikoetan (*garbizaite, gorrizaita*) (ikus Landuccio 1562).

Atzizki hauen kronologiari dagokionez, Urgellek uste du *-te* eta *-tze* Mitxelenaren Euskara Batu Zaharraren garaikoak direla, bien artean, *-te* zaharrena izanik. Erran bezala, hastapen batean, *-tze* aditz modernoagoetan baizik ez zen agertzen, hots, partizipioa *-tu-z* zutenetan. *-(k)eta* atzizkiari dagokionez, hiruen artean berriena liteke erabilpen horrekin. Euskara Batu Zaharraren garaikoa izanik ere, berantago, —eta nagusiki mendebaldean— gramatikalizatuko zen aditzen eratoritzeko atzizki gisa, *-tze*-ren lekua hartuz. Edozein kasutan, Urgellen ustez aditz-izenaren gramatikalizazioa ez zen batean gertatu hiru atzizki horietan eta *-te*-dun formak lehenik gramatikalizatu ziren.

Egitura horren balio aspektualari dagokionez, Lafonek (1943) proposatzen du, jatorrian, prozesu baten iraupenaren adierazteko erabiltzen zela, nahiz eta XVI.mendean balio hori jadanik galdua zuen.<sup>3</sup> Bestalde, Lafonek uste du aditz laguntzaileak duela iraupenaren balioa ekartzen, ez aditz-izenak:

Tandis que, en vieil anglais, la forme périphrastique devait sa valeur durative au participe présent, en basque, c'est pour une bonne part à l'auxiliaire employé que le présent de type *egiten dut* a dû le pouvoir d'exprimer le développement présent d'un procès qui doit aboutir à un terme. Par la suite, l'auxiliaire a perdu sa signification propre de verbe à valeur déterminée. (Lafon 1943, II. tomoa: 43)

Egitura horren balio aspektualaren aldaketa historikoak sakonkiago aztertzen ditu Aldaik (2003) bere tesian. Testuetako lekukotasunean oinarriturik ondoko gramatikalizazio bideak proposatzen ditu aldi oraineko egiturarentzat:

- (7) orainaldi progresiboa > orainaldi iteratiboa > orainaldi frekuentatiboa > orainaldiko ohitura > orainaldi gnomikoa, generikoa

---

<sup>3</sup> « *sartzen da* 'il entre', litt. 'il est en entrée'; *hartzen du* 'il le prend' litt. 'il l'a en prise' : indicatif présent (*Syst.*, II, 40-43). Le présent basque composé a si bien perdu la valeur durative qu'il a du avoir autrefois que déjà, au XVIe siècle, pour indiquer un procès qui dure, pour marquer que l'on passe du temps à faire quelque chose, on remplace l'auxiliaire 'avoir' par l'auxiliaire 'être' accompagné de l'adjectif *ari* 'occupe à' : *jaten ari da* 'il est en train de manger'. L'indicatif présent à auxiliaire 'être' ou 'avoir', exprime une assertion relative au moment présent ou une assertion intemporelle (présent intemporel ou de répétition)» (Lafon 1999: 512).

## 2. Beste hizkuntzetako datuak eta euskararenak parez pare

### 2. 1. Beste hizkuntzak

Ikerketa desberdinek erakusten diguten bezala, (Comrie 1976, Heine & Reh 1984, Bybee & Dahl 1989, Heine 1993, Bybee & al. 1994, Kuteva 2001, Heine and Kuteva 2002, Anderson 2006) hizkuntza askotan progresiboa lokatibozko espresio baten gainean eratzen da:

The location schema has been referred to by Dik (1987: 64) as the Localist channel. It is most commonly used to develop progressive aspects; in fact it probably accounts for more progressive constructions in the languages of the world than all other event schemas taken together (Heine 1993: 32).

Gehienetan egitura predikatibo bat da<sup>4</sup> [kopula + lokatibo (adposizio edo kasu marka bat) + aditz-izen] gisa osatua. Afrika mendebaldeko hizkuntza askotan aurkitzen dugu, hala nola Ewe, Igbo, Yoruba hizkuntzetan, baita Maninka, Kuranko, Bambara, Dioula, Mende, Bobo-Fing (Mande Hegoaldekoa), Bisa hizkuntzetan ere. Kwa hizkuntzan (Ewe, Niger-Congo) progresibozko egitura gisa horretan eraturia da: [*le* lokatibozko kopula + aditz-izen + *-m(e)* lokatibozko posposizioa] (Heine 1993: 121):<sup>5</sup>

- (8) Kofi le xə tu- m  
Kofi da etxe eraikitze lok.  
“Kofi etxea eraikitzen ari da”

Ondoko adibidean ikusten den bezala, *le* kopula eta *me* lokatibozko postposizioa lokatibozko perpaus arruntetan ere aurki litezke (Heine 1993: 121):

- (9) Kofi le xə me  
Kofi da etxe lok.  
“Kofi etxean da”

Maninka hizkuntzan, *ye* kopula + aditz-izen bat lokatiboan (zehatzago, aditz izen + lokatibozko posposizio) egitura erabiltzen da aspektu progresiboa edo iraunkorraren adierazteko (Spears 1972: 15-16 apud Heine & Reh 1984: 123):

- (10) A yé né lá  
hura da etortze lok.  
“Etortzen ari da”

---

<sup>4</sup> The majority of progressive forms in our database derive from expressions involving locative elements [...]. The locative notion may be expressed either in the verbal auxiliary employed or in the use of postpositions or prepositions indicating location- ‘at’, ‘in’, or ‘on’. (Bybee & al. 1994: 129) ‘The conclusion concerning stative sources for progressives, then, strongly points to location as a necessary semantic element, and no clear cases of progressives formed with a copula without a locative element have been found in our data.’ (idem 132)

<sup>5</sup> Heinek P[repositional] P[eriphrasis] deitzen du mota horretako perifrasiak.

Progresibozko forma ondoko egitura predikatiboarekin konpara dezakegu. Aldi honetan, predikatua ez da aditz-izen bat, baizik eta izen bat lokatiboan:

- (11) A yé bón là  
hura da etxe lok.  
“Etxean da” (Heine & Reh 1984: 123)

Egitura hau bera hizkuntza germaniko batzuetan ere aurkitzen dugu, hala nola ingelesez.<sup>6</sup> Jespersen-ek (1949) erraten digu inglesaren historian ikusten dela progresibozko forma bat [kopula + lokatibozko adposizio + aditz-izen] gisako egitura predikatibotik garatzen.<sup>7</sup> Denboran zehar, lokatibozko preposizioa *a-* bilakatu zen eta gero betiko galdu:<sup>8</sup>

- (12) *I am on doing that* > *I am a-doing that* > *I am doing that*

Bestalde, gisa horretako egituretan askotan ikusten den bezala, aditz izenaren objektua genitiboan markatua da (*'s* inflexio genitiboa testu zaharrenetan edo *of* preposizioa lekukotasun berriagoetan). Horrek iraun du gutxienez XVII. mendera arte, eta gero emeki-emeki desagertu da:

- (13) *as she was writing of it* (Shakespeare: *Ado* IV.3.10, apud Jespersen 1949: 176) “Horren idazten ari baitzen...”  
(14) *they were carrying of him...* (Bunyan (1678) P 164, apud Jespersen 1949: 176) “Haren eramaten ari ziren...”

## 2.2. Egitura hauen sortze prozesuari buruz

Hizkuntzaz hizkuntza egitura horren aurkitzeak erakustera ematen du lotura semantiko hertsia dugula lokatiboaren eta progresiboaren artean, eta ez dela kasualitatea lokatibozko egitura progresibo egitura bihurtzea. Subjektuaren kokapena espazioan adierazten zuen egitura zabaldu da, eta orduan erabiltzen da hiztuna bere ekintzan/prozesuan kokatzeko:<sup>9</sup>

The reason that Ewe progressive structure has locative morphology (locative copula and erstwhile postposition) and a nominalizing indicator (the high floating tone) is precisely *because* it

<sup>6</sup> Holandesez (*Ik ben aan het lezen* ‘I am at the reading’) eta Alemanieraren aldaera dialektal batzuetan ere aurkitzen dugu. Alemanieraren progresibozko egituraz luzeago mintzatuko gara beherago (II,2).

<sup>7</sup> Iduri luke egitura hori *-ende* partizipioa + *beon*, *wesan* laguntzaileez osatu egituraren ondoko forma dela: “The modern English expanded tenses are in some vague way a continuation of the old combination of the auxiliary verb and the participle in *-ende*; but after this ending had been changed into *-inge* and had thus become identical with that of the verbal substantive, an amalgamation took place of this construction and the combination *be on* + the sb, in which *on* had become *a* and was then dropped.” (Jespersen 1949: 169). Ordezkatze hori nola gerta zitekeen inglesaren historiaren puntu ilunenetarikoa da.

<sup>8</sup> Iduri luke holandesez ere lokatibozko preposizioa (*aan*) frankotan erortzen dela.

<sup>9</sup> Oroit aldaketa sintaktikoak erregularrak direla eta ez direla ezbeharrez gertatzen: “Syntactic change is regular, in the sense that it is rule-governed and not random” (Harris 2003: 532; Harris & Campbell 1995: 325-30). Bizkitartean horrek ez du erran nahi ez dela salbuespenik.

evolved historically from a spatial construction ('X is in Y') involving a Subject X as being located with respect to a nominal entity Y (an object or place). Thus features that are a 'mystery' for a static description become an integral part of the diachronic explanation. (Kuteva 2001: 9)

Despite the variety of specific instantiations of the *co-location* notions ('be on', 'be at', 'be in', 'be with'), in none of these languages can the progressive be traced back to a structure involving an adposition meaning 'out of', 'off', or 'away from', or 'after', or 'before' [...]. **This in itself speaks in favour of a non-arbitrary conceptually-semantically motivated auxiliatation development in genetically and geographically remote languages.** (Kuteva 2001: 24) (belztura gurea da)

### 2. 2. 1. Hedatze semantikoa

Proposamen desberdinak aurkeztu dira garapen horren azaltzeko. Hengeveld (1992), euskara adibidetzat harturik, *hedatze metaforikoaren* terminotan mintzo da. Izan ere, proposatzen du *ibiltzen da* bezalako egituran lokatibozko metafora bat erabiltzen dela errateko subjektua 'ibiltzearen prozesuan' dela. Haren ustez, hedatzea *etxean da* gisako egituretan oinarritzen da:

The locative predication type has a further auxiliary use. Unlike the constructions discussed in the previous sections, in order for the locative predication to acquire this auxiliary use, it has to undergo a metaphorical extension. [...]

Example (59) [*Etxean da*] is a regular locative predication in which both the argument term and the predicate term designate first order entities. Example (60) [*Ibiltzen da*] is identical to (59) [*Etxean da*] except for the fact that the predicate term designates a second order entity. The subject is said to be located in a state of affairs in which he himself participates. This locative metaphor has entered the aspectual system of Basque and many other languages and is used to express durative or progressive aspect. [...]

The construction can only be interpreted metaphorically, and this fact may be responsible for the rapid grammaticalization to which this construction type seems to be subjected. (Hengeveld 1992: 274-75)

Kuteva & Sinha (1994) eta Kutevak (2001) ere hedatze metaforikoaren alde egiten dute. Bizkitartean, Hengeveld (1992) baino urrunago doaz entseatzen baitira urrats desberdinen bereizten lokatibozko egituratik progresibozkora gertatu saltoaren azaltzeko. Horretarako, Koloniako alemanieraren aldaera dialektalean oinarritzen dira, gisa horretako egitura baitu, berriki sortua. Kuteva & Sinha (1994), Kutevaren (2001) arabera, hastapenean lokatibozko egitura hau genuke: *sein* ('izan') + *an* (lokatiboa) + determinatzailea + Izen Sintagma: *Ich bin an (an.dem) Bahnhof* (lit. 'ni naiz lok.geltokia' = 'geltokian naiz'), urratsez urrats progresibozko egitura bihurtzen dena:

1.urratsa: Zabaltze metaforiko bat dugu, egituraren esanahi lokatibo arruntetik, leku batean burutzen den ohizko ekintza baten esanahira: *Ich bin an der Uni* (lit. 'Unibertsitatean naiz') = (i) Unibertsitatean naiz, (ii) Unibertsitatean lan egiten dut.

2. urratsa: Beste zabaltze semantiko bat dugu (metonimia gisa ikus litekeena), leku batean burutu ekintza baten esanahitik, aktibitatearen nozio orokorraren esanahira, aktibitatea entitate gisa harturik: *Bist Du mit dem Aufsatz fertig?* "Idazkia prest ote duzu?", *Nein, Ich bin immer an der Arbeit* = "Ez, oraindik ere lantzen ari naiz" (lit. "lanean naiz").

3. urratsa: Zabaltze semantikoa urrunago doa: aktibitatea, entitate gisa hartua zena, eta izen baten bidez adierazia, performantza gisa hartzen da eta aditz-izen baten

bidez adierazten da: *Ich bin am Arbeiten*= “Lan egiten ari naiz” (lit. “lan egitean naiz”). Kutevaren ustez, baliteke progresibozko forma berria zabaltze horrekin batera sorturik: “It could have been this extension that led to the progressive use” (Kuteva 2001: 32)

4. urratsa: Egitura kontestu berri batzuetara hedatzen da, zehazkiago aditz trantsitiboetara: *Martha ist Flaschen am sortieren* “Marta botoilen ateratzen ari da” (lit. “Marta botoilak ateratzean da”).

5. urratsa: Infinitiboak aditz izena ordezkatzeko du egituraren,<sup>10</sup> eta subjektu bizigabeak posible dira, orain arte subjektua beti biziduna zelarrik: *Der Schmerz ist am nachlassen* “Mina eztatzen ari da”.

### 2. 2. 2. Egitura predikatibotik egitura perifrastikora: berranalizatze prozesuak

Hedatze semantikoaren hipotesia horiek laguntzen gaituzte salto kontzeptualaren ulertzeri. Bizkitartean, nahiz eta azaletik ez den ikusten, egiturak berranalizatze prozesu bat pairatzen du.<sup>11</sup> Kutevak (2001) aipatzen duen 3. urratseko zabaltze semantikoa gertatu eta, erran nahi baita aditz-izena egitura predikatiboan sartu eta, egituraren aldaketa bidean da. Egitura predikatiboa egitura perifrastikoa gisa berranalizatzen da: egitura predikatiboko aditz-izena perifrastikoa aditz nagusi gisa berranalizatzen da, aditz ezaugarriak bereganatuz, eta izen ezaugarriak galduz; eta kopula zena, egitura perifrastikoko aditz laguntzaile gisa dugu:

- (15) [Subjektu] + [aditz-izena lokatiboan (predikatu nominala)] + [kopula] →  
[Subjektu] + [aditz-izena (aditz nagusia)] + [laguntzailea]
- (16) *[Ich] [bin] [am Arbeiten]* → *[Ich][bin am Arbeiten]*

### 2. 3. Euskararen datuak

Gorago erran bezala, euskarazko jatorrizko progresibozko perifrasiak hizkuntza hauetan bezala osatzen da: aditz-izen bat (aditz-oina + *-te*, *-tze*, *-keta*...) kasu inesiboan + *izan* kopula. Orduan guk ere parez pare ezar ditzakegu ondoko bi egiturak:

- (17) Jon etxerat etort(z)en da  
(18) Jon mendian da

Bizkitartean, *izan* kopula aditz iragangaitzekin baizik ez da erabiltzen; aditz(-izen) iragankorrekin \**edun* laguntzailea erabiltzen baita:<sup>12</sup>

- (19) Jonek bazkaria prestatzen du

<sup>10</sup> Garapen hau alemanaren barnekoa da arrunt.

<sup>11</sup> Berranalisiak ez du aldatzen azaleko egitura: “Reanalysis is a mechanism which changes the underlying structure of a syntactic pattern and which does not involve any immediate or intrinsic modification of its surface manifestation.” (Harris & Campbell 1995: 61)

<sup>12</sup> Ikerketa tipologiko askotan euskarazko progresibozko egitura aipatzen delarik ‘verbal noun in locative + be’ egitura gisa aipatzen da eta ez da sekulan ohartarazten aditz iragankorrak desberdin portatzen direla laguntzaileari eta argumentu egiturari dagokienez (Bybee & al. 1994, Hengeveld 1992).



Irakurlea ohartuko zen gorago eman beste hizkuntzetako adibideetan kopula baizik ez dela erabiltzen laguntzaile gisa, aditz nagusia iragangaitza zein iragankorra izan. Hori hala ere bada kontsultatu ditugun azterketa tipologikoetan. Horrek behartzen gaitu guretzat biziki arrunta den euskarazko egitura beste manera batez ikustera.

### 3. Euskarazko progresibozko egituraren diakroniaz: hipotesia

#### 3.1. Proposamena

Gure proposamena hau da: euskaraz ere ez dela beti hala izan, erran nahi baita jatorrian kopula baizik ez zela posible egitura horretan, aditz iragankor, zein iragangaitzekin. Bi argumentu ditugu horren alde. Alde batetik, euskararen bitxitasuna beste hizkuntzetako datuen aldera: hizkuntza guzietan, salbu batek, patroia bera erakusten badute egitura jakin batean, pentsatu behar dugu ohizkoa ez den egitura eratorria dela, bigarrenkaria dela. Beste alde batetik, egitura horientzat proposatzen den gramatikalizazio prozesuak berak, eta bereziki, prozesu horren iturriak,<sup>13</sup> \**edun* laguntzailea bazterratzen digute: oinarrian egitura predikatibo bat dugu, beste edozein egitura predikatibo lokatiboren parekoa dena:

(20) Subjektua + Izen Sintagma lokatiboan (predikatu nominala) + *izan* kopula

Gisa horretako egituretan kopula baizik ez da posible<sup>14</sup> erran nahi baita hitz bat (askotan aditz bat baina izan liteke erakusle bat edo zero-morfema bat ere), semantikoki hutsa dena, berezko ekarpenik egiten ez diona esaldiaren esanahiari, eta larriki errateko *junta* funtzioa duena. Hengeveld (1992), kopula morfema bat da predikazioa sortzen duena, predikatua ez delarik aditz bat:

The most salient feature of the copula is that it makes no independent contribution to the meaning of the sentence. This feature is reflected in the fact that in some languages and under varying circumstances the copula can be left out without affecting the meaning of the sentence. [...] the shades of meaning often attributed to a copula can be traced back to other characteristics of the sentence, such as the nature of the non-verbal predicate and its arguments. [...]

The fact that a copula is semantically empty immediately raises the question of what its function in the sentence is. Here this function may be broadly defined as a supportive one. A copula enables a non-verbal predicate to act as a main predicate in those languages and under those circumstances in which this non-verbal predicate could not fulfill this function on its own. [...] From its supportive function it follows that the copula itself is not a (part of the) predicate, but an auxiliary accompanying a non-verbal predicate and its argument(s). (Hengeveld 1992: 32-33)

Gehiegi luzatu gabe, argi gelditzen da \**edun* ez dela kopulatzat hartzen ahal, eta ez dugula pentsatzen ahal egituraren sortzean laguntzaile gisa erabiltzen zela. Hortik,

<sup>13</sup> Ikus Bybee & al. (1994) gramatikalizazio iturrien determinazioaren hipotesiari buruz.

<sup>14</sup> Erabiltzen delarik, naski, hizkuntza batzuek ez baitute kopularik Hengeveld (1992).

pentsatu behar dugu hastapen batean, *izan* kopula baizik ez zela erabiltzen euskarazko egitura predikatibo horretan, aditz-izen iragankor zein iragangaitzekin.<sup>15</sup>

- (21) a. *Jon mendian da*  
b. *Jon etxerat etortzen da*  
c. *\*Jon bazkaria egiten da*

### 3.2. Garapena urratsez urrats

Hori hala asumiturik, suposatu behar dugu *\*edun* laguntzailea eta iragankortasunari dagozkion gainerateko ezaugarriak (ergatiboa, objektu komunztadura...) bigarren une batean garatu zirela egituran. Bizkitartean, bigarren une hori ez da edozein izaten ahal; ezaugarri iragankorrak egitura berranalistu eta gero baizik ez zitezkeen ager, erran nahi baita aditz-izena aditz nagusi gisa berranalistu zelarik, hots, egitura kopulatibo bateko izen-predikatua izatetik egitura perifrastiko bateko aditz-predikatua izatera pasatu zelarik. Hona proposatzen dugun garapena urratsez urrats:<sup>16</sup>

#### 1. urratsa: Egitura predikatiboa

- i. [ni] [mendian] [naiz]  
ii. [ni] [etorten] [naiz]

Urrats honetan, *mendian* (izena lokatiboan) eta *etorten* (aditz-izena lokatiboan), predikatuak dira (ez aditz-predikatuak<sup>17</sup> gorago erran bezala) eta subjektuaren kokapena adierazten dute leku batean (izenaren kasuan, *mendian*) edo bere prozesuan (aditz-izenaren kasuan, “*etortzearen prozesuan*”).<sup>18</sup>

#### 2. urratsa: Egitura predikatiboaren berranalisia

- i. [ni mendian] [naiz]  
ii. [ni] [etorten naiz]  
iii. *\*[ni] [bazkaria egiten naiz]*

---

<sup>15</sup> Egituraren sortzea lekukotua duten hizkuntzak kontuan hartuz, zilegi ditake pentsatzea hastape-hastapenean egitura soilik aplikatzen zitzaizela aditz iragangaitzei eta iragankortasun maila apala zutenei (Heine & Kuteva 2005: 66).

<sup>16</sup> Gogoan atxiki behar da tarteko garai franko badela horrelako garapen batean, gehienak ezin berreraikiak. Guk berreraiketa eskematiko orokor bat baizik ez dugu aurkezten.

<sup>17</sup> “A non-verbal predicate may defined negatively as a predicate that is not a verb. A verb may be defined as a predicate which, without further measures being taken, has a predicative use only. A verb can assume a non-predicative function only after undergoing a further measure such as nominalization or participialization, whereas a non-verbal predicate can be put to some non-predicative use without any of these measures being taken.” (Hengeveld 1992: 27)

<sup>18</sup> Trasken intuizioa ere hala zen: ‘The original sense of a participle like *ikusten* must have been literally ‘on seeing’, or ‘at seeing’ (Trask 1995: 224).

Bigarren urrats honetan, aditz-izena egiturako aditz nagusi gisa berranalizatzen da eta kopula, egitura analitikoko laguntzaile gisa. Egitura predikatibo batetik egitura perifrastiko batera pasatzen gara. Orduan posible bihurtzen da aditz iragankorren erabiltzea egitura horretan (Oroit Kuteva & Sinharen 4. urratsa).

### 3. urratsa: Egitura iragankorraren egokitzapena

- i. [ni mendian] [naiz]
- ii. [ni] [etorten naiz]
- iii. [nik] [bazkaria egiten dut]

Aditz-izena egitura perifrastikoaren aditz nagusi bilakatu da. Orduan, aditz-izenak bere azken izen ezaugarriak galtzen ditu (hortaz ikus beherago 4.) eta aditzarenak berreskuratzen: theta-rolen banatzeko eta argumentu egitura erabakitzekeo ardura. Horrek eraginen du aditz-izen iragankorrek iragankortasunaren ezaugarrien berreskuratzea eta finkatzea egitura horretan: \**edun* laguntzaile iragankorra,<sup>19</sup> kasu ergatiboa subjektuan eta objektuarekiko komunztadura. Campbell eta Harris-en (1995) terminologia berriz harturik, erranen dugu berranalisia gertatu eta egokitzapen edo aktualizazio prozesua martxan jarri dela.<sup>20</sup>

### 3.3. Eraginak? Hedadura prosezuak

Uste dugu indar batzuek bultza zezaketela progresibozko perifrasiaren berregituraketa: analogia edo hedadurak<sup>21</sup> hain zuzen. Ebidentziak baditugu pentsatzeko euskarazko perfektuzko perifrasi inperfektibozkoa baino lehenago sortu zela.<sup>22</sup> Baliteke egitura honen hedaduraz inperfektibozko perifrasiak iragankor eta iragangaitzen arteko banaketa sortu zuela, aditz iragangaitzek subjektu absolutiboa eta *izan* kopula laguntzaile gisa harturik, eta aditz iragankorrek subjektu ergatiboa, objektu absolutiboa eta \**edun* laguntzailea bereganaturik.<sup>23</sup> Itzul gaitezen aipatu 2. eta 3. urratsetara. Uste dugu hauetan perfektuzko forma gehitu behar dela, eragin handia izan zukeelakoan aipatu egokitzapen edo aktualizazio prozesuan:

---

<sup>19</sup> Nahiz eta \**edun* laguntzailea aditz iragankor gisa aurkezten dugun (arrazoin praktikoengatik bereziki), gogoan dugu Hagège (2005) non zalantzan ezartzen den aditz afektiboen iragankortasuna.

<sup>20</sup> Aktualizazioa berranaliaren ondotik gertatzen da: “Reanalysis is, in fact, not visible to us directly, and it is only through meaning change (which is not always present) or through the actualization that follows reanalysis that we can see its effects.” (Harris 2003: 536); “actualization [is] the gradual mapping out of the consequences of the reanalysis” (Timberlake 1977: 141 apud Harris & Campbell 1995: 77)

<sup>21</sup> “*Extension* is a mechanism which results in changes in the surface manifestation of a pattern and which does not involve immediate or intrinsic modification of underlying structure” (Harris 2003: 532; Harris 1996; Harris & Campbell 1995)

<sup>22</sup> Ikus beherago kronologiazko oharra (V. parte).

<sup>23</sup> Perfektuaren jatorriari dagokionez, erran behar dugu gaur egun perifrasi horretan dugun laguntzaile banaketa bera gendukeela hastapenetik. Perifrasi horren sorrerari buruz ikus Mounole (2007a).

1. *urratsa: Egitura predikatiboaren berranalisia*

- i. [ni mendian] [naiz]
- ii. [ni] [etorten naiz]
- iii. \*[ni] [bazkaria **prestatzen naiz**]

vs

- iv. [ni] [etorri naiz]
- v. [nik] [bazkaria **prestatu dut**]

2. *urratsa: Egitura iragankorraren egokitzapena*

- i. [ni mendian] [naiz]
- ii. [ni] [etorten naiz]
- iii. [nik] [bazkaria **prestatzen dut**]

vs

- iv. [ni] [etorri naiz]
- v. [nik] [bazkaria **prestatu dut**]

Gure ustez, ergatibotasunak edo hobeki erranik euskararen eredu ergatiboak ere eragin zezakeen egituraren aktualizazioa edo egokitzapena. Aditz-izena egiturako aditz nagusi gisa berranalisatuko zen heinean hiztunak subjektu ergatiboaren markatzeko beharra sentituko zuen. Orduan, ergatiboa subjektu iragankorretara heda zitekeen eta berekin laguntzaile iragankorra ekar zezakeen.<sup>24</sup>

Avar hizkuntza (Dagastan familia, Kaukasoko Ipar Ekialdea) hizkuntza ergatiboa da eta gisa horretako garapena ezagutu du bere progresibozko forman (Harris & Campbell 1995: 187-89). Hastapenean, partizipioa + kopula gisa eratzen zen, subjektua absolutiboan izanik, aditz iragankor zein iragangaitzekin. Bizkitartean, egitura perifrasi gisa berranalisatu eta, ergatibozko kasua aditz iragankorretako subjektuetara hedatu da eta objektu zuzenarekilako komunztadura sortu kopulan –kopulari komunztadura aurrizkia gehituz– eta partizipioan –partizipioari komunztadura atzizkia gehituz–. Baliteke hizkuntza ergatiboetan aktualizazio prozesua indartsuagoa izatea mota horretako egituretan. Avar hizkuntzan kasu ergatiboa hedatzen da baina laguntzailea ez da aldatzen –kopula dugu aditz iragangaitz zein iragankorrekin, nahiz eta iragankorretako objektuarekilako komunztadura bertan garatu den–. Beraz alde horretarik euskara avar hizkuntza baino urrunago joan da egituraren egokitzapenean. Baliteke, euskararen kasuan, kasu ergatiboa eredu ergatiboaren eraginez hedaturik, eta *\*edun* laguntzailea bigarren une batean agerturik, perfektuzko perifrasiaren hedaturaz edo analogiaz. Ordena edozein izanik ere, uste dugu argi dela bai eredu ergatiboak baita perfektuzko perifrasiak eragin handikoak izan zirela euskarazko progresibozko egituraren berregituraketan.<sup>25</sup>

<sup>24</sup> Artetik errateko, horrek erakutsiko luke aldi honetan laguntzaile hautaketa ez dela aditz nagusiaren semantikari lotua (Bentley & Eythorsson 2003) baizik eta horren argumentu egiturari.

<sup>25</sup> Irigoienek (1985) ere proposatu zuen hastapen batean *izan* laguntzailea aditz iragankor eta iragangaitzekin erabiltzen zela eta *\*edun* berantago hedatu zela aditz iragankorretara. Bizkitartean, haren eta gure arrazoinbideak arras desberdinak dira. Irigoienek uste du euskarazko egitura inperfektiboa latinaren *esse* + ‘orainaldiko partizipioa’ egituraren kalko hutsa dela, seguraski erlixiozko testuen itzulpenetan sortu eta egunerokotasuneko euskarara hedatu zena: « Las perifrasis del tipo *egozten zuen*,

Azkenik, pentsatzen dugu laguntzaile txandaketaren bitartez burutzen den inperzonala eta pertsonalaren arteko bereizketak ere bultzatzea iragankor / iragangaitzen arteko bereizketa inperfektibozko perifrasiari: *Jonek egiten du vs askotan horrela egiten da.*

### 3. 4. Egitura predikatiboa berreraikitzen buruz

Sakonkiago pentsatu nahi genuke progresibozko perifrasiaren jatorrizko formari, erran nahi baita, jatorrizko egitura predikatiboari. Gorago erran bezala, uste dugu jatorrian egitura predikatiboa mota horretakoa zela:

(22) Subjektua + aditz-izena + lokatibozko kasua + kopula

Hizkuntza askok erakusten duten bezala, egitura horretan osagarri bat dagoelarik, genitiboan izan ohi da: predikatua aditz-izena izanik, horren osagarria izen-lagun gisa portatzen da, hortik, genitiboan da:

As is to be expected whenever the Location Schema is employed, the main verb is encoded in a nominalized form [...]. When the verb is nominalized, object complements are presented as inalienable possessor noun phrases. In Ewe the possessor precedes the possessed constituent, and there is no formal marking in the case of inalienable possessive constructions. Thus, the phrase *xe tu-tu-* in (6) and (7) means literally ‘the house’s building’; that is, the object (‘house’) appears as a possessive modifier on the nominalized verb (Heine 1993: 122).

Gorago erran bezala (II, 1), ingelesak bere historian progresibo bat sortu du aditz-izen, lokatibo eta kopulaz osatu egitura baten bidez. Jespersenen (1949) arabera, ingeles zaharrean aditz-izenaren objektuak ere genitiboan markatzen ziren. Gutxienez, hala zen XVII. mendera arte. (23) eta (24) gisa errepikatzen ditugu, gorago (13) eta (14) gisa eman adibideak:

(23) *as she was writing of it* (Shakespeare *Ado* IV.3.10, apud Jespersen 1949: 176) “HorREN idazten ari baitzen...”

(24) *they were carrying of him...* (Bunyan (1678), P 164, apud Jespersen 1949: 176) “HaREN eramaten ari ziren...”

Ingeles modernoan, gerundioak galdu ditu bere izen ezaugarri guztiak eta objektua ez da gehiago genitiboan markatzen progresibozko egiturari. Bizkitartean, iduri luke piska

---

*egozten ari zen*, son del mismo sentido y formación que la perífrasis constituída por el verbo ser + participio de presente en griego y en latín, con adaptación ulterior a la distinción formal de transitivo e intransitivo, bien establecida, por otra parte, en el sistema más antiguo de la lengua vasca, a partir de dicho modelo, ser + participio de presente, difundido por la cultura religiosa con base en determinados usos del latín vulgar, y antes del griego, utilizando el sustantivo verbal en caso inesivo como sustituto de dicho participio de presente por carecer de esta última forma la lengua » (Irigoién 1985: 41). Beste lan batean erakutsi dugun bezala (Mounole 2006), gure perifrasiari artean, perfektuzkoak baizik ez du paralelorik latin klasikoko eta erromantzezko egitura batekin. Testu erlijiozkoen garrantziari buruz egituraren hedatzean, erran behar dugu gure lehenbiziko testu erlijiozkoen itzulpen luzeak XVI. mendekoak baizik ez direla, XV. mendean, inperfektibozko egitura nahiko gramatikalizatua zelarik bertso sortek erakusten duten bezala (Milia Lastur, Arrasateko erreketak).

bat gehiago irauin zuela perpaus jokatu gabeetan, XVIII. mendean oraindik, gerundioaren subjektu iragankorra edo objektua genitiboan marka baitzitezkeen: *I don't approve of his doing that* "ez dut onartzen haREN egite hori", Defoe<sup>26</sup> M 16 *they shan't catch me a-kissing of you* = "ezin naute harrapatu zuRE musukatzen".

Euskarari dagokionez, ekialdeko euskalkiek aditz-izen iragankorretako objektua genitiboan markatzen dute, perpaus jokatu gabeetan: *aitaren ikustera noa*.<sup>27</sup> Aditz-izen iragangaitzetako subjektuari dagokionez, Lafitteren arabera (1963), ekialdeko testu zahar batzuetan ere genitiboan markatzen da: *aitaren jiteaz atsegin dut*. Bi erabilpen horiek mendebaldeko eta erdialeko testu zaharretan aurkitzen ditugu, horrek pentsarazten baitu garai batean euskalki guzietara orokortuak zirela: (i) objektua genitiboan: *Bergararroc asi dira trajioe baten asmaçean* (Arrasateko erreketak, TAV 83) ; (ii) subjektua genitiboan: *kukuen kantatzean, euri ta eguzki*, « Cuando el cuco suele cantar, lluvia y sol » (RS 70), *Olasso da ENE-EGOTECO aulquia* (Garibai). Guk, Traskek bezala (1995), uste dugu forma hauek berrikuntzak baino gehiago arkaismoak direla, eta salatzen dutela aditz-izenek izen ezaugarri asko gorde dituztela.

Baina zer pentsa progresibozko egitura zaharraren objektuei buruz? Lafittek (1962: 221) dioenaren arabera, subjektua eta objektua ez dira genitiboan agertzen ahal progresibozko egitura zaharrean.<sup>28</sup> Bizkitartean, pentsa dezakegu jatorrian euskaraz, ingelesez eta Ewe hizkuntzetan bezala, egitura predikatiboko objektuak ez zirela egitura arruntetan bezala portatzen, erran nahi baita, genitiboan markatzen zirela, eta aditz-izena aditz nagusi gisa berranalizatu zen heinean, izen ezaugarriak galdu zituela,<sup>29</sup> eta objektuak kasu absolutiboa hartu:

\*bazkariaren prestatzen naiz

\*jainkoaren entzuten naiz

---

<sup>26</sup> Defoe, Daniel: *Moll Flanders* (The Abbey Classics), XVIII-XIX.

<sup>27</sup> Bizkitartean ez da sistematikoki erabiltzen Lafittek azpimarratzen duen bezala: 'L'infinif nominal étant à la fois nom et verbe, on sent chez les auteurs une grande hésitation dans la façon de traiter les sujets et les compléments qui s'y rattachent. Les uns regardent l'infinif comme un *nom* et tendent à mettre sujets et compléments directs au génitif dans tous les cas. Ex. **Aitaren jiteaz atsegin dut**, *je suis content de la venue de mon père* (litt.: *du venir du père*); **aitaren ikustean**, *en voyant le père* (litt.: *dans le voir du père*); **aitaren egite hori**, *cette action du père* (litt.: *ce faire du père*). D'autres regardent l'infinif comme un *verbe* et tendent à traiter les sujets et compléments en conséquence, en négligeant le génitif dans tous les cas. Ex.: **aita jiteaz atsegin dut**, *je suis content de la venue de mon père* (litt.: *du le père venir*); **aita ikustean**, *en voyant le père*; **aita ikusteko**, *pour voir le père*; **aitak egitean**, *quand le père le faisait* (litt.: *dans le père le faire*). Bestalde, azpimarratzen duen bezala, aditzi zenak *-ean* eta *-rekin* kasuetan deklinatuak direlarik, haiekin doazen objektuak ez dira genitiboan agertzen ahal (absolutiboa baizik): "Le complément direct de l'inessif singulier et celui de l'unitif singulier se construisent chez tous les classiques avec le nominatif. Ex.: **Hura ikhustean**, *en le voyant*; **hura ikhustearrekin**, *en le voyant*. Quand ils sont construits avec le génitif, c'est que ces infinitifs doivent être pris comme noms. Ex.: **liburuaren hastean**, *au début du livre*; **liburua hastean**, *en commençant le livre*." (Lafitte 1962: 221)

<sup>28</sup> "L'inessif archaïque employé comme *élément d'un temps composé* ne reçoit *jamais* ni sujets ni compléments au génitif." (Lafitte 1962: 221)

<sup>29</sup> Aditz-izenen izen ezaugarriak hauek dira: ez dira pasibizatzen ahal, ez dute adverbiorik hartzen ahal, eta subjektu eta objektuek ez dituzte kasu arruntak hartzen. Aditz gisa berranalizatzen direlarik, objektuak kasu arrunta hartzen du (eta genitiboa galtzen).

Bizkitartean, ez dugu horren arrastorik testu zaharretan eta orduan nahiago dugu horretan gelditu gehiegi espekulatzeko ordez. Halere, baldin eta arrasto hori galdu balitz horrek erran nahi luke gure lehenbiziko testuetarako egitura nahiko gramatikalizatua zela eta aditz-izenak bere izen ezaugarriak jadanik galduak zituela.

Bukatzeke, perifrasiaren orokortzeari dagokionez, egitura ez zatekeen hastapenetik aditz guzietara hedatua. Traugottek erakusten du ingeles zaharrea egitura aditz-izen dinamikoekin baizik ez zela erabiltzen:

Even when it occurs in translations, it is most commonly found, according to Mossé, with verbs denoting movement, especially those associated with warface, for instance, *winn-* ‘fight’, *feoht-* ‘fight’, *herg-* ‘harry’, *slea-* ‘slay’, *far-* ‘go’, *iern-* ‘run’. Right from the start, then, it has been primarily associated with action verbs. (Traugott 1972: 90)

Guk ere pentsatu behar dugu egitura ekintza aditzekin sorturik, bigarren une batean heda zitekeela aditz estatiboetara.

Gero, ez dugu erraten ahal egitura tempus orainaldian ala iraganean ager zitekeen. Beharbada testuen azterketa kuantifikatibo batek arrapostu bat ekar liezaguke.<sup>30</sup>

### 3. 5. Sinkroniazko datuak

#### 3. 5.1. Aditz-izena inesiboan + egon egitura

Ohartarazi nahi dugu zabaltzen ditugun hipotesiak bat datozela gaur egungo euskararen sinkronian aurkitzen ditugun beste egitura progresibo batzuekin. Lehenik, gorago erran dugun bezala, mendebaldeko euskalkiek<sup>31</sup> progresiboazko egitura bat dute aditz izena inesiboan + *egon* kopula gisa eratzten dena, aditz iragangaitz zein iragankorrekin:

- (25) *Pentsetan nago etortea*  
(26) *Karta bat idazten nago*<sup>32</sup>

Egitura horretan, *egon* perifrasiako laguntzailea da. Hizkuntzako beste egitura batzuetan aldiz, lokatiboazko kopula da, *izan* kopula arruntarekin oposaketan dena, gaztelerazko *estar*<sup>33</sup> lokatiboazko kopula, *ser* kopula arruntarekin oposaketan den bezala.<sup>34</sup>

<sup>30</sup> Datu interesgarri bat halere: semitikoaz egitura gehiago erabilia da tempus iraganean iragan iraunkorraren adierazteko, tempus orainaldian baino (Cohen).

<sup>31</sup> XVI. mendean jadanik agertzen da mendebaldeko autore zaharren testuetan: Lazarraga: *erregutan gagozu*. Erran behar da, euskalki guzietan aurkitzen dugula, nahiz eta maizagoa den mendebaldeko hizkeretan: Leizarraga (*tenplean othoitz egiten nengoela*, Act 22, 17). Lafitteren arabera (1962), *berotzen nago* ‘je me chauffe’, *berotzen nindagon* ‘je me chauffais’ bezalako adibideak ‘présent’ eta ‘imparfait continu’ dira hurrenez-hurren, ez progresiboak. Ene ustez, forma hau progresiboazko beste egitura bat da, euskarak duen bigarren kopularekin eratua.

<sup>32</sup> Milesker Joseba Lakarrari bere intuizioak emanik zati honetako adibideei buruz.

<sup>33</sup> Gaztelerazko *estar* kopula, latinezko *stare* postura aditz lexikotik garatua da. Bybee & al.en arabera (1994) jatorrian *estar* lokatiboazko kopula bat da, eta gerundizko egitura lokatiboa/aspektu ez-burutuaren arteko loturaren adibide bat gehiago da: “Since *stare* [latin ‘to stand’] is originally a locative verb, this construction could as well be interpreted as having a locative source” (Bybee & al. 1994: 132)

Izan ere, *izan* aditzak ez bezala, *egon* aditzak, postura eta lokazio ñabardurak ditu: beti erabiltzen da lokazio eta denbora egoeretak:

- (27) Jon etxean dago
- (28) Jon haserre dago
  
- (29) Juan está en casa
- (30) Juan está enfadado

Progresibozko egitura berria gisa horretan eratua da: aditz-izena inesiboan + *egon* laguntzailea. Hau ere egitura predikatibo batetik eratorria da: Subjektua + predikatua (aditz-izena) + lokatiboa (inesibozko kasua) + kopula (*egon*). Egitura hau hertsiki lotua da gorago aipatu Afrika mendebaldeko hizkuntzen progresibozko egiturei (II, 1), baita euskararen garai zaharretan aditz izena inesiboan + *izan* kopularen bidez egiten zen egiturari ere.<sup>35</sup>

Ez du iduri adibide horietan ezaugarri iragankorrak hedatzen ari direnik (*\*edun* laguntzailea edota ergatibozko kasua aditz-izen iragankorreko subjektuan). Horren arrazoin bat liteke egitura ez dela hertsiki lotua honetan eragina izan zezakeen beste egitura bati: *egon* intrantsitibo vs *\*edun* trantsitibo oposaketarik ez da beste forma analitiko batean.<sup>36</sup>

Azkenik, progresibozko forma horren erabilpena murriztua da. Izan ere ez da aditz mota guzietan erabiltzen ahal: mugimendu aditzak eta aditz estatiboak ez dira erabiltzen ahal egitura horretan.

- (31) \*\*Peru etorten dago
- (32) \*\*Bueltetan dago<sup>37</sup>
- (33) \*\* Egoten nago

Murrizketa horiek erakusten dute progresibozko perifrasi hau ez dela guztiz gramatikalizatua. Gorago aipatu Koloniako alemaniararen progresibozko perifrasi ere ez da kontestu guzietara hedatua. Ez da agertzen ez solas aditzekin, ez mugimendu aditzekin ezta subjektu bizigabea duten egiturekin ere:<sup>38</sup>

---

<sup>34</sup> *Egon* bizkaieraz gipuzkeraz baino hedatuagoa da gure lehenbiziko testuetarik, eta gaur egun *izan* baino gehiago erabiltzen da. Iduri luke gipuzkerazko testuetan *egon*-en erabilpena inesibo batekin edo leku adberbio batekin hedatuz doala XIX. mendean, XX. mendean, *izan* bezain erabilia izan arte (OEH). Azterketa kuantifikatiboek beharrezkoak dira garatze honen zehazki aipatu ahal izateko.

<sup>35</sup> Gisa horretako egituretako objektua genitiboan markatzeko joerari buruz, azpimarratu behar dugu horren adibide bat baizik ez dugula aurkitu testu zaharretan: *Beraren etorrera santuaren ichedeten ceuden Anima justu aec* Otxoa Arin (1713: 7). Gaur egun ez dugun erabilpen horren arrastorik.

<sup>36</sup> *-t(z)en* (iragangaitza) + kopula, *-t(z)en* (iragankorra) + *\*edun* vs *-tu* (iragangaitza) + kopula, *-tu* (iragankorra) + *\*edun* oposaketa dugularik perfektuzko eta progresibozko forma zaharraren artean.

<sup>37</sup> vs *etorten da*, *bueltetan da*, *egoten da*. *Bueltan dago* posible da, baina hori beste egitura bat da.

<sup>38</sup> Iduri luke alemaniarazko egitura euskarazkoa baino murriztuagoa dela, euskaraz solas aditzak agertzen baitira progresibozko forma horretan (*esaten nago ez dela egia*) baita subjektu bizigabeak ere (*bazkaria erretzen dago*). Dena den oraindik aztertzeokak dira euskarazko egitura horren erabilpen baldintzak eta murrizketak.



This structure has the morphosyntactic form *sein* ('be') + *am* (that is, *an dem* 'at.the') + *non-finite form*. It can be used with a relatively small set of verbs in the main verb slot; they are, typically, action verbs like *arbeiten* 'work', *kochen* 'cook', *schreiben* 'write', etc. but not verbs of saying, or very often motion verbs. (Kuteva 2001: 30)

### 3.5.2. Aditz-izena + ari + izan

Erdialdeko eta ekialdeko euskalkiek [aditz-izena / izena inesiboan + *ari* + *izan* laguntzailea] egitura erabiltzen dute progresiboaren adierazteko: *bazkaria prestatzen ari naiz*, *dantzan ari naiz*.<sup>39</sup>

Erabilpen hedatuena *izan* kopula baizik ez badu onartzen aditz-izen iragangaitz zein iragankorrekin, erran genezake *\*edun* laguntzailea gero eta gehiago erabiltzen dela aditz iragankorrekin, gisa horretan, iragangaitz (*izan* laguntzailedunak) vs iragankor (*\*edun* laguntzailedunak) banaketa ekarriz.

Lafittek (1962) laguntzaile ordezkatzeko horren berri eman zuen bere gramatikan: *uraren karreatzen ari da* vs *ura karreatzen ari du* bezalako txandaketak aurkeztuz. Gure ustez, bi egiturak arras desberdinak dira: batean Izen Sintagma bat dugu, non *karreatzen* aditz-izen bat den, bere izen ezaugarriekin, besteak beste izenlagun bat genitiboan (*uraren karreatzen*); eta bestean *karreatzen* perifrastiko aditz nagusia da, eta *ari* aspektu marka,<sup>40</sup> *karreatzen* aditzak argumentu egituraren eta rol semantikoen banaketaren ardurak dituelarik. Aditz ezaugarriak bereganatu dituen neurrian, izen ezaugarriak galdu ditu, besteak beste, osagarria genitiboan izatearenak. Gisa horretako txandaketak biziki arruntak dira hizkuntza baten sinkronian.<sup>41</sup>

Lafittek ez bezala, ez dugu uste genitiboa kentzeak nahita nahiez objektuarekiko komunztadura eta laguntzaile aldaketa ekartzen dituela. To-genitiborik ez duten hizkeretan laguntzailea edo komunztadura ez dira baitezpada aldatzen: *zizak biltzen ari naiz* (Pablo Sastre *Hotel Magikoa*). Bizkitartean, erran bezala, laguntzaile aldaketa gero eta gehiago entzuten da. Hona bi testu ofizialetan aurkitu adibideak:

Eusko Jaurlaritzaren web-gunean aurkitu adibide bat:<sup>42</sup>

Plásticos Bilorea, CAF eta Kutxa enpresek, besteak beste, etorkizuneko zuzendariak **prestatzen ari dituzte**. Etorkizun hau berrikuntzaren gaietan berehalakoa da, IKT-i esker. Hauek dira apustuaren gai nagusiak: IKT-en bertatzekoa enpresaren estrategian eta merkatuari aurreratzea.

Edo, 2001/05/19ko EGA azterketako ulermenezko parteko erantzun posibletarik bat:<sup>43</sup>

Oporrak iritsi bitartean, udako **planak egiten ari ditu**

<sup>39</sup> Perifrasia horren jatorriari buruz, ikus Trask (1995): 'The various progressive auxiliaries like *ari izan* 'be busy (at)' can take either an imperfective participle, as in *egiten ari da* 'he is doing it', but originally and literally 'he is busy at doing it', or the locative case of a noun, as in *lanean ari da* 'he is working', literally 'he is busy at work' Trask (1995).

<sup>40</sup> *Ari*-ren izaeraz ikus Laka (2004).

<sup>41</sup> Hortaz ikus Harris & Campbell (1995).

<sup>42</sup> [http://www.enpresadigitala.net/euskera/noticias/noticia\\_concreta.jsp?id=2599](http://www.enpresadigitala.net/euskera/noticias/noticia_concreta.jsp?id=2599)

<sup>43</sup> <http://www.interneteuskadi.org/euskara/ega/20010519.xml>

Ohar gaitezen bi adibide hauetan baita entzun ditugun gehienetan ere objektua pluralean dela. Baliteke pluraltasun horrek komunztadura bultzatzea; eta ondorioz \**edun* laguntzailearen agerpena baldintzatzea. Horrek pista bat gehiago idekitzen du laguntzaile aldaketaren nondik norakoaren ulertzeko. Dударik gabe, datu hori arras kontuan hartzekoa da gure progresibozko egitura zaharraren berregituraketan eragin duten indar aldatzaileen argitzeko.

Lanaren bigarren zatian ikusi dugun bezala, munduko hizkuntza askotan lokatibozko espresio bat erabiltzen da progresiboaren edo oro har aspektu ez-burutuaren esanahiarekin. Azpimarratu nahi dugu euskararen historian lokatiboa + kopula egitura biziki emankorra izan dela, beti ere aspektu bukatugabearen adierazteko. Izan ere, gorago aipatu perifrasiaren ondoan –(i) *etorten naiz*, (ii) *pentsetan nago*, (iii) *etorten ari naiz* – ekialdeko euskalkietan, beste forma batzuk aurkitzen ditugu gisa horretan eratuak: *kokinean da*, *mintulinean da*, *gaixtoan da*, *pitoan da* vs *kokina da*, *mintulina da*, *gaixtoa da*, *pitoa da*. Lehenbiziko formek momentuko izaera adierazten dute, bigarrenek izaera iraunkorra, nortasuna adierazten dutelarik.<sup>44</sup>

## 5. Bururapena

Azterketa tipologikoei bultzatu gaituzte beste manera batez ikustera guretzat oso arrunta den erabilpen bat. Aditz-izena inesiboan + *izan* (aditz iragangaitzekin) edo + \**edun* (aditz iragankorrekin) ez da egitura arrunta munduko hizkuntzetako progresibozko perifrasiaren artean. Bai tipologiak baita gramatikalizazioaren teoriak ere erakusten digute aditz-izena lokatiboan duten progresibozko perifrasiaren egitura bakar bat dutela posible jatorrian: kopuladuna eta subjektu absolutiboduna aditz iragankor zein iragangaitzentzat. Erakutsi dugu euskarazko inperfektibozko perifrasiaren egitura hori zukeela hastapenean (1. urratsa). Gero, egitura predikatiboa perifrasi gisa berranalizatu eta (2. urratsa), aditz-izen iragankorrek ergatiboa beren subjektuetara heda zezaketen eta \**edun* laguntzailea har, *izan* kopularen orde. Erran dugu bi eragin nagusi ikusten genituela prozesu horren gertatzean: alde batetik patroi ergatiboaren presioa, kasu ergatiboa eska zezakeena aditz-izen iragankorretako subjektu guzietan; eta bestetik, perfektuzko perifrasiaren eredia, hedaturaz subjektu absolutibo + aditz iragangaitz + *izan* vs subjektu ergatibo + aditz iragankor + \**edun* oposaketa ekarriko zuena. Azkenik, gertakari sinkronikoen datuak kontuan harturik, baliteke objektuarekilako komunztadura pluralaren beharrak eraginik laguntzaile aldaketan.

Erran gabe doa hipotesi horrek ondorioak dituela perifrasiaren kronologiarako. Gorago ikusi dugun bezala, Urgellek (2006) erakutsi du ebidentzia formalak daudela errateko aditz-izena partizipioa baino berriagoa dela: atzizki nominatzaileen hautaketa partizipioaren formaren arabera egiten da, horrek erakusten baitu partizipioa dela zaharrena. Hedaturaren hipotesia beste argumentu bat liteke horren alde. Baldin eta inperfektibozko perifrasiak subjektu ergatiboa eta \**edun* laguntzailea perfektuzko perifrasiaren eraginez garatu baditu aditz-izen iragankorrekin, ez da dudarik

---

<sup>44</sup> Mendebaldeko euskalkietan bereizketa hau burutzen da *izan* / *egon* laguntzaileen erabilpen kontrastatiboari esker: *zoro dago* (momentu honetako ezaugarria) vs *eroa da* (izaera iraunkorra).

inperfektibozko perifrasiaren perfektuzkoa baino berriagoa dela. Azkenik, lan honek berriz ere azpimarratzen du euskararen perifrasiak biziki desberdinak direla bata bestearen aldera (Mounole 2006).

Gaskoierak inperfektibozko perifrasiaren sorreran izan zezakeen eraginari buruz, zailtasun handiak ditugu Haaseren (1992) hipotesiaren onartzeko. Lehenik, euskarazko perifrasiaren gaskoieraren perifrasiaren eraginez sortu bazen nola hedatuko zen euskalki guzietara? Euskara eta gaskoieraren arteko kontaktu eremua Aturriren inguruan hasi eta Bidasoaren inguruetan gelditzen zen, ekialderago Biarno eta Zuberoaren arteko mugetan kokatzen zelarik. Orduan, pentsatu behar ote dugu egitura ekialdeko euskalkietan sortu eta gainerateko euskalkietara hedatu zela? Ez zaigu biziki sinesgarria iduritzen.

Beste arazo bat pisu handiagoa duena: noizkoa da gaskoieraren forma hori? Ez ditake biziki zaharra azterketa sinkroniko eta diakronikoek ez baitute sekulan aipatzen: Ronjat (1980), Rohlf (1972), Lespy (1986), Jensen (1880). Argiki erakutsia izan da forma bat aski gramatikalizatua eta hedatua izan behar dela beste hizkuntza batek 'kopiatu' ahal izateko (Heine & Kuteva 2005).

## Bibliografia

- Aldai, G., 2003, *Grammaticalization of present and past in Basque*, Doktoretzako tesia, University of Southern California.
- Anderson, G. D. S., 2002, 'The languages of Central Siberia: introduction and overview', in E. Vajda (arg.) *Languages and Prehistory of Central Siberia*, John Benjamins, Amsterdam, 1-122.
- \_\_\_\_\_, 2006, *Auxiliary Verb Constructions*, Oxford.
- Azkue, R. M., de, 1923-1925, *Morfología Vasca, Euskera* IV-VI.
- \_\_\_\_\_, 1935, "Evolución de la lengua vasca", *Euskera* XVI, 57-120.
- \_\_\_\_\_, & O. Dahl, 1989, "The creation of tense and aspect systems in the languages of the world", *Studies in languages* 13: 1, 51-103.
- Bybee, J., R. Perkins, & W. Pagliuca, 1994, *The evolution of Grammar: Tense, Aspect and Modality in the Languages of the World*, University of Chicago Press, Chicago.
- Cohen, M., 1924, *Le système verbal sémitique et l'expression du temps*, Leroux, Paris.
- Comrie, B., [1976] 1981, *Aspect: An introduction to the study of verbal aspect and related problems*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Bentley D., & T. Eythórsson, 2003, "Auxiliary selection and the semantics of unaccusativity", *Lingua* 114, 447-471.
- Hagège, C., 2005, "De la place réelle de la transitivité, ou la typologie linguistique entre passé et avenir", *Linguistique typologique*, G. Lazard & C. Moyse-Faurie (arg.), *Septentrion*, 55-69.
- Harris, A., 1996, "Extension in Diachronic Syntax and Morphology", *Chicago Linguistic Society* 32, L. M. Dobrin, K. Singer & L. McNair (arg.), 93-109
- \_\_\_\_\_, 2003, "Cross-Linguistic Perspectives on Syntactic Change", *The handbook of Historical Linguistics*, B. D. Joseph & R.D. Janda (arg.), Blackwell, Oxford, 529-551
- Harris, A., & L. Campbell, 1995, *Historical syntax in cross-linguistic perspective*, Cambridge U. P., Cambridge.

- Haase, M., 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*, Helmut Buske, Hamburg.
- Heine, B., 1993, *Auxiliaries: Cognitive Forces and Grammaticalisation*, Oxford U. P., Oxford.
- Heine, B., & M. Reh., 1984, *Grammaticalization and Reanalysis in African languages*, H. Buske, Hamburg.
- Heine B. & T. Kuteva, 2005, *Language contact and grammatical change*, Cambridge U. P., Cambridge.
- Hengeveld, K. , 1992, *Non-verbal predication: Theory, Typology, Diachrony*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Hualde, J. I., J. A. Lakarra, & R. L. Trask, (arg.), 1995, *Towards a history of Basque*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia.
- Hualde, J. I. & J. Ortiz de Urbina, (arg.), 2003, *Grammar of Basque*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York.
- Irigoyen, A., 1985, *En torno a la evolución y desarrollo del sistema verbal vasco*, Bilbo.
- Jensen, F., 1986, *The syntax of Medieval Occitan*, Niemeyer, Tübingen.
- Kuteva T. & C. Sinha, 1994, "Spatial and Non-Spatial Uses of Prepositions: Conceptual Integrity Across Semantic Domains", in M. Schwarz (arg.), *Kognitive Semantik/Cognitive Semantics: Ergebnisse, Probleme, Perspektiven*, Gunter Narr Verlag, Tübingen, 215-237.
- Kuteva, T., 2001, *Auxiliation: An enquiry into the Nature of Grammaticalisation*, Oxford U. P., Oxford.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au XVIème siècle*, Delmas, Bordeaux.
- \_\_\_\_\_, 1999, *Vasconiana*. Iker 11, Euskaltzandia, Bilbo.
- Laka, I., 2004, "Ari progresiboaz: euskararen kasu markak", P. Albizu & B. Fernández, *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 113-132.
- Lakarra, J., 1996, *Refranes y Sentencias (1596): Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 2006a, "Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica", *Oihenart* 21, 231-324.
- Lazarraga, J., Perez de 1666, *Eskuizkribua, Iñigo Landaren edizio elektronikoa*.
- Lespy, J. D., 1880, *Grammaire béarnaise, suivie d'un vocabulaire béarnais-français*, Maisonneuve et Cie, Paris.
- Leizarraga, I., 1900, I. *Leizarragas baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, Th. Linschmann et H. Schuchardt (arg.), Strasbourg. Berarg. izenburu berarekin (1990), Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mitxelena, K., [1961] 1990, *Fonética histórica vasca*, ASJU-ren gehigarriak 4, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- \_\_\_\_\_, [1963], 1990, *Lenguas y Protolenguas*, ASJU-ren gehigarriak 20, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- \_\_\_\_\_, [1981] 1987, "Lengua común y dialectos vascos", *Palabras y Textos*, UPV/EHU, Bilbo, 35-55.
- \_\_\_\_\_, 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, J. A. Lakarra (arg.), Gipuzkoako Foru Aldundia, ASJU-ren gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- \_\_\_\_\_, 1987-2006, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

- Mounole, C., 2006, "Quelques remarques à propos de l'histoire des périphrases basques", *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask -Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz. Larry Trasken Oroitzapenetan*, J. A. Lakarra & J. I. Hualde (arg.), *ASJU* 40: 1-2, 725-740.
- \_\_\_\_\_, 2007, "Perfektuzko perifrasiaren historiaz" (eskuizkribua).
- \_\_\_\_\_, 2008, "Laguntzaile hirupertsonalen sorreraz" (prestatzen).
- Oyharçabal, B., 2003, 'Tense, aspect and mood', in J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), 249-284.
- Ronjat, J. [1930-1941] 1980, *Grammaire historique des parlers provençaux modernes*, Slatkine, Marseille.
- Trask, R. L., 1977, "Historical syntax and Basque verbal morphology: Two hypotheses", *Anglo-American contributions to Basque studies. Essays in honor of Jon Bilbao*, W. A. Douglass, R. Etulain & W. H. Jacobsen (arg.), Univ. of Nevada, Reno, 203-217.
- \_\_\_\_\_, 1981, "Basque verbal morphology", *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak, Iker 1*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, 1990, "The -n class of verbs in Basque", *TPS* 88: 1, 111-128.
- \_\_\_\_\_, 1995, "On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque", in Hualde J. I., Lakarra J. A., Trask R. L. (arg.), 207-234.
- \_\_\_\_\_, 1997, *The history of Basque*, Routledge, Londres.
- Urgell, B., 2006, "Para la historia del sustantivo verbal en vasco", *Studies on Basque and Historical Linguistics in honor to R. L. Trask -Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz. Larry Trasken Oroitzapenetan*, J. A. Lakarra, J. I. Hualde (arg.), *ASJU* 40: 1/2, 921-948.